



HERRIKO BOTZAK

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (II)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalBotzak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetgo Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

HERRIKO BOTZAK

(1956)

Aintzin solasa

Nere antzerki gaiak, kasik denak, dira Euskal-Herrian edo bederen Euskaldunen artean gertatu edo gertatzen diren harat-hunatak.

Antzerki horien mamia, zintzo edo irrigarri, da beti erakaspén emaile.

Nere erakaspéna da, gutiz gehienetan oraiko egunari doakona, Euskaldungoaren akulatzaile, jende handien harrotzaile...

«Nolako bizi, halako idatzi» da errana... Nik uste, nere biziko borrokak, nere herriaren alderako kar minbera, nere odolezko etorkizuna, dira nere buru-lanen iturri eta su-gailu.

Ez ditut maite amets hutsak. Funtsezko ametsetan, biziaz oratuetan, Jainkoa eta Eliza Ama gidari, deramakate nere artzaingoa.

Horra zer zimenduaren jabe dudán ateratu antzerki berri hau.

Ez uste izan, hunen erakaspéna dela: Bozkatzearen kondénatzea...

Bozkatzea da urrats errespetagarri eta zintzo bat, gizonaren norbaitasuna ohoratzen duen gizonak, emeki eta nekez, beretu duen dretxo bat.

Zorigaitzez, dretxo errespetagarri hori ez da beti errespetuki balia-tua, batetik gizon zenbaiten malezia gaxtoarengatik, bestetik bozkatzaile hainitzen ahuleziarengatik.

Beharbada zenbaiti idurituko zaiote, oraiko jende argitu eta leundu-entzat, antzerki huntako bozkatzaileak ez direla antzeko, baina hirri-killu eta petralegi... Hobe, hobe, eta agian ba!... Baina asko ofiziale «jende biltzailek» diote, jendeen kaskotan zerbait sartu nahi duen idazlariak, bere lana behar duela muntatu, hamalau urte inguruko koxkorrentzat balitz



bezala... Maila hortarat, jakinduria jauts ditake urtu gabe, eta, jakin gabezia upa ditake, lotsatu gabe.

Dena den, horra zertarik den, zertako eta zertarako, antzerki hau.

Lehen aldikotz, Hazparneko multzoak eman zuen, naski 1956. urtean.

P. Larzabal

Jokalariak:

MERA: 65 urte, jitez zalapart eta kezakor.

MONSIEUR PHILIPPE: 50 bat urte, faltsu, apostolu aire.

GREGORIO: 60 bat urte, bisaia ilargi.

AROTZA: Beltzaran, muztatzdun, idor eta bortitz.

KOSE: 60 bat urte, lunetetan, errement aire.

PAKO: 50 bat urte, xuhur bezi, zaintsu, moxkor bisai.

XIXON: 20 bat urte, zilinga, dena grimas, bitziki bezi.

OSTALERTSA: 45 bat urte, lerdan eta puxka gizontsa.

BERTA: 25 bat urte, eder eta maltzur.

JUSTINA: 70 bat urte, hortzak eskas, bitzi...

DOLOREZ: 50 bat urte, aire nekatu moko kari bat.

BERTZE ZENBAIT: Agertzen direnak, mintzatu gabe edo mintzatzan agertu gabe.

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Ostatu bat.

(Ostalertsan barnean dabilen okupatua)

KOSE: *(Atabala joz, kridatzan ari, agertzen da leihoan)* Jaun Meraren partez...

Herriko botzak ditugula... *(Asto bat entzuten da orroz, Kose kexu)* Eiherako asto ustela... Gregorioren asto zikin horri, nik oraino hortzak hautsiko ziozkaiait. Ez baitut botza altxatzen ahal horren errefera entzun gabe.

OSTALERTSA: Dudarik gabe, zure botzak, beharriak minberatzen daizko.

KOSE: *(Kexu)* Zu ere, zaude ixilik. *(Berritz atabala jo eta)* Jaun Meraren partez... herriko botzak ditugula... Denek botza eman dezatela, ez baita botza emaile soberakinik... Zaharren eta erien garreatzeko, oto bat izanen dela. *(Berritz astoa entzuten da)* Asto madarikatua... Nik hiri oraino makil ukaldika, bizkar hezurra hautsiko daiait. *(Ostalertsari)* Ekazu edaterat hunarat.

OSTALERTSA: Zuritik edo gorritik?

KOSE: Badakizu arras ontsa, bozetako egunetan, gorriak, gorritik bakarrik dugula edaten. Zuria atxikazu zurientzat.

OSTALERTSA: *(Zerbitzatur)* Sekulan, arotza nausitzen bada bozetan, zure herrimutilgo kargua galduko duzu ba, zuk ere.

KOSE: Arotzak ez du sekulan gure mera aurtikiko.

OSTALERTSA: Ez dakit... Joan den aldiaren, gorriak bi bozez nausitu zinezten gero bakarrik.

KOSE: Oraikoan, nausituko gira hamarrez bederen... Gure mera, norbait da gero. Erakutsi ahal du zertaz kapable den... Noiz ikusi da, orai artio, holako herriko pesta ederrik. Hori kargutan sartuz geroz, bertzelako ordre eta garbitasunik da gure gure karrikan.

OSTALERTSA: Ba, zuhaur karrika garbitzale zirelakotz.

KOSE: Ba... Nihaur kridari, herriko mutil eta karrika garbitzale ere... Norbaitek behar du alabainan, lan horietako ere... Eta, baka-



rrak lan horiek guziak egiten baditu, herriko moltsarentzat hobe.

OSTALERTSA: Ez du iduri, zu herriko langile sartzea biziki baliatu zaiola herriko moltsari. Zergak goratu dauzkute segurik aurten ere.

KOSE: Zer zira, zu ere, gure kontra? Jaun Merak jakinen du.

OSTALERTSA: Erraiten ahal diozu segurki eta halere... Berdin, botzak emanak ez direno, ni hartaz baino, hura nitaz gehiago behartuko baita.

KOSE: Botzak direla eta, ez da gehiago bazterretan buruzagien errespeturik... Banoa kridaren segitzerat. Arno hau, bozen kondu...

OSTALERTSA: Ontsa da... Zuk hasia izanen duzu gorrien barrika. (*Bakarririk*) Haste komedia... Zortzi egunez, ha zer mozkorrak behar dituzten tiratu, zenbaitek hemen... Bi barrika arno edateko... Gorritik, barrika bat, gorriek eskainia... Xuritik bertze bat, xuriek eskainia. (*Urrunerat entzuten dira kridaria eta... astoa*) Ezin sinetsia da botzak nola nahasten dituen jende batzu... Botza aintzinean nehun seinale ez ziren jende batzu, ikus ditzake botza egunetan arras harrotuak, nahasiak, gontzetarik jaliak... Irriegingarri dira egiazki... Politika egin behar dela nahi dut, bainan politika saltsa... Hainitzentzat, saltsan artzea da politika egitea.

Orai, erradazue nik nori behar diotan botza eman... Orai artinoko mera gorriari edo arotza kontrario zuriari... Ha, nahastekatzten ahal banitu bederen, arnoak bezala...

(*Irriz dago urrungo kridari*) Huna Jaun Mera heldu... Izan gaiten beraz gorri.

MERA: (*Sartuz*) Agur, Kattalin... Hasi duzua gure barrika arnoa?

OSTALERTSA: Ba, Jaun Mera... Herriko mutilak eman dio lehen tirakoa.

MERA: Arno onetik dea bederen?

OSTALERTSA: Ez da segurik Kose arranguratu.

MERA: Ekazu xorta bat jasta dezadan... Grefiera ez dea oraino agertu?

OSTALERTSA: Monsieur Philippe?... Ez, ez da oraino agertu... Estonatzeko baita harentzat. Ez bide du luzatuko.

MERA: Eta?... Hemen iragaiten direnek zer diote botzez?

OSTALERTSA: Arotzak Gregorio hartzen omen du axurantzako.

MERA: Ba, ba. Ez ginuke beharragorik gure herria desohoratzeko: arotza mera eta eiherezaina axuant. Zerendako ez, axuantaren astoa, bere beharri haundiekin... Berdintsu laite.

OSTALERTSA: Gregorio pasatu omen da etxe guzitan botzen galdatzeko.

MERA: Ba, bere eiherezaingo ofizioa baliatzen zaio hortako ere... Ustela. Eta denetan gauza bera kondatzen du: Nik botiges nizelakotz, ez omen dut deus ere konprenitzen kanpainako harat hunatez. Arotzak ere gauza bera diote kabala ferratzerat heldu direneri.

OSTALERTSA: Badutea entzule?

MERA: Nork daki?... Kanpainadarra hain da zoroa. Zuk eta nik, karrkarrek omen ditugu kanpainadarrak tturrintzen... Eta, arotzak, eiherezainak, zer dire hek?... Kanpainadarren laguntzale batzu beharbada? Zuk eta nik baino diru gehiago ba tiratzen diote horiek kanpainadarreri.

OSTALERTSA: Ez duzua uste, hori karkulatzen dutela kanpainadarrak berek ere.

MERA: Batere ez dakit... Egin behar luketena da segurik... Arotza hemen auzapez... Ohu!... Zer konprenitzen du horrek legetan? Ez da hori, jaunen arterat agertzeko on den gizona... Ohuu... Berak ere behar luke konprenitu... Bulegotan afera bat segitzeko nun du horrek jakitatea, eta nun astia ere... Uste badu meragoa josteta bat dela. Ha, huna grefiera.

MONSIEUR PHILIPPE: (*Sartuz*) Agur, Jaun Mera! Agur Kattalin!

OSTALERTSA ETA MERA: Agur Monsieur Philippe!

MERA: (*Mr. Philipperi*) Zikin horietaz ari giren... Zure kontra ere badute erraiteko... Zuk duzula herriko etxean manatzen eta ez nik... Alderdikaria zirela, eta hola.

MONSIEUR PHILIPPE: Ba, jelos dira... Erakutsi baitugu, guk merian sartuz geroz, zertaz giren kapable. Gure karrikan, bertze ordrerik baita, eta herriko pestek ere, bertze itxurarik baitute, hori dute ezin jasan.

MERA: Ba, eta arotzak ez dauku barkatzen, bere ate aintzinetik kendu diogun kabala edanarazteko iturria... Iturri hori herriarena zen, eta ez berea... Uste duzua, hor, pollit zen, karrikaren gainean, beti inguruak itxiletan zauzkala, kabala iturri hori?... Iturria behar badu, aski du bat egitea, bere erremuetan.

MONSIEUR PHILIPPE: Utz ditzagun mintzatzerat... Eta, gure aldetik, bertze hainbertze egin dezagun...

MERA: Nik segurik ene predikua egiten diotet, botikarat jiten direneri.



MONSIEUR PHILIPPE: Pentsatzen dut, zuk ere Kattalin, ez dituzula hunarat jiten direnak ixilik uzten... Badakizu zure etxean dugula aurten, gerlari ohien bazkaria.

OSTALERTSA: Milesker, Mr. Philippe, eni pentsaturik... xuritik edo gorritik?

MONSIEUR PHILIPPE: (*Irriño batekin*) Holakorik, ez egun hautan, guri galda.

MERA: Errazu, eta... eman diozuia beha kolpe bat listari?

MONSIEUR PHILIPPE: Ba, dena ontsa kurritu dut: baditugu hogoi bat, errotik kontra, eta bertze hainbertze errotik alde... Azken hamarrak berritz dudamudazkoak. Horien biltzerat behar dugu entseatu. (*Lixta eskuetan danka*)

MERA: Nor zautzu iduritzen bil ginezakela hamar horietarik?

MONSIEUR PHILIPPE: Lehenik, hemen baditugu bizpahiru, erretoraren ingurukoak: Justina zeinu joilea, Dolorez, erretor baitan lanean dabilana... Pako, erretoraren ahuntz zaina.

MERA: Erretora bera gure alde bil bagineza?

MONSIEUR PHILIPPE: Ez da erraz izanen.

MERA: Aski diogu hitz emaita, elizaren teilatua erreparatuko diogula... Badu beharra...

MONSIEUR PHILIPPE: Ez da gaizki pentsatua.

MERA: Eta zertako ere ez mana meza bat gerlari ohientzat edo holako?

MONSIEUR PHILIPPE: Kasu eman behar dugu haatik, gorriak ez deskontentatzea, zuriena sobera eginez...

MERA: Bon, askiko da bala bat muntatzea, gerlari ohien ohoretan.

MONSIEUR PHILIPPE: Hola, nunbait hor izanen da... (*Lixta eskuetan*) Hemen ikusten dut: Manez Mendigorri. Aspaldian, familia haundien modelaren beha dago... Hura aipatuz, beharbada bil ginezake eta haren emaztea ere ba...

MERA: Bon, aski diozu hitz emaita...

MONSIEUR PHILIPPE: Bi gazte baditugu soldado... Kolia bedera igorritz, herriaren izenean, nik este heien familiak ere aide ginituzke...

MERA: Bai ta ere. Eta, Pako eta Dolorez.

MONSIEUR PHILIPPE: Dolorez, nik uste, jaun erretorak kontseilatuko duen, etxeko langilea duenaz geroz. Pako nahasi hori aldiz, nork konpreni? Entseatuko naiz zerbait gisaz horren biltzerat. Bertzerik ez badezakegu, mozkor on batez bederen bilduko anal dugu.

MERA: (*Ahapatik*) Botzetako untziaren zaintzaleak eginak direa?

MONSIEUR PHILIPPE: Bego hori ene gain... Eta, agian joan den aldian bezela, bazkaritako denboran, bakarrik utziko ahal gaituzte untziaren zain... Te, huna heldu Pako nahasia, erretoraren artaldearekin.

PAKO: (*Leibotik ageri*) Alo, bixar, alo. (*Abuntzak «mee»ka ari zaizko*) Nik ere joan behar diat iturrirat... Errazu, Kattalin botzetako barrikak idekiak dituzuia?

OSTALERTSA: Ba, sartzen ahal zira.

PAKO: (*Ez ditu ikusten Mera eta Mr. Philippe*) Ekazu hunarat laster edaterat, laster, zintzurra arras xukoan baitut.

OSTALERTSA: Zointarik nahi duzu: xuritik edo gorritik?

PAKO: Berdin zaut edozoin, xuri ala gorri. Berdin denek leher egiten ahal dute enegatik.

OSTALERTSA: Hola ostatu aintzinean, behar dituzuia utzi ahuntz eta pittika horiek? Ez zirea jaun erretorak ikus beldur?

PAKO: Erretorak bere edan aldia egina du goizean, mezan... Orai, ene aldi.

MERA: Errazu, Pako.

PAKO: (*Ikusten ditu*) Ha, barkatu, Jaun Mera... Ez zintudan ikusten.

MONSIEUR PHILIPPE: Zu, Pako, gerlan ibilia zira, pixka zenbait bederen.

PAKO: Ba... Altxatu ninduten eta aintzin hartarat igorri... Bainan, ni harat heldu orduko, gerla bururatu zen.

OSTALERTSA: Holako soldadoa ikus-eta, etsaiak ikaratu bide ziren.

MONSIEUR PHILIPPE: Papera batzu badituzu hor meriarat jinak, eta, nik uste, bazinukela, zuk ere, gerlako pentxionetan dretxo zerbait.

PAKO: Ez da goizegi norbait nitaz okupa dadien.

MONSIEUR PHILIPPE: Botzak pasatu ordu, gure kargua beiratzan badugu segurik, hitzemaiten dautzut nihaur behar den tokirat joanen naizela, zure pentxionearen ardiesteko.

PAKO: Ontsa da... Zerbait bururatzan baduzu, oroituko naiz zutaz.

MERA: Nahi baduzu zerbait burura dezagun, oroit zaite gutaz, bozkatzerrat joaitean.

DOLOREZ: (*Leibotik samur*) Gizon trixtea... jaun erretorak, hoinbertze erran dautzu, ez duela bere ahuntzarik ikusi nahi estekan ostatu aintzinean... Eta, oraino ere, hor zira?

PAKO: Zaude deskantsuan, ene erazte beti kexua, zu... Ez nau berdin jaun erretorak despeituko, bailuke lan ene ordainaren hatzemaiten, bere ahuntzen alatzeiko.



DOLOREZ: Trixtea... Batere zure beharretan ez delarik, urrikariz lana emaiten dautzu... Eta horra zer axola duzun, zuretzat egiten duenaz.

PAKO: Erretorak jana, lanean truk emaiten daut... Eta hemen aldiz, edana urrik... Hari bezenbat zor diotet hemengoeri.

MONSIEUR PHILIPPE: Errazu Dolorez, oraintxet aipu nion zure senarrari, zuek ere laguntza beharretan zinetela, eta, gerlako pentxione bat ontsa jina laitekela zuen moltsarentzat.

DOLOREZ: Ez gira pentxione beharretan bizitzeko. Aski du lanean artzea eta gutixago edatea.

PAKO: (*Oldartuz*) Horra zer errespetu duen ene emazteak gerlari ohientzat... Eta, segur naiz, zuri zikin horieri emanen diotela bere botza.

DOLOREZ: Zuri edo gorri, denak berdinak zarete... Denak su bereko on liezken egurrak...

MONSIEUR PHILIPPE: Emeki, emeki, Dolorez.

DOLOREZ: Zalu edo emeki; hori hola dena da... Eta zuk, hobeki egin zinezake, gizon trixte hori, hor, arnoz enganatzeko orde, igortzen bazinu bere lanerat... (*Urrunduz*) Den bezelako herresta.

PAKO: Lana... Egiten dut hura ere, bere tenorez... Oraino iguzkiak badu zer argi... Zer duzu hola eni jazartzeko?

MONSIEUR PHILIPPE: Ez duzu gehiago hor... Debaldetan zira hari mintzo.

PAKO: Hobe du urrundu baita. (*Urrunerat mintzo*) Zuri banda zikina zul... (*Abuntzak mee-ka lotzen zuzizko*) Ixilik zuek ere, pittika ergelak!... Presatuak zireztea?... Ni, batere... Sofriazue hor... Jes, ez daukute elgarrekin solastatzeko astirik ere utzi nahi.

XIXON: (*Sartuz*) Hela!...

PAKO: (*Irri trufaz*) To, Xixon... Aicia!... Xixon... Ez ginian bertze beharregarik.

MERA: (*Samur*) Errazu, Pako, ene semeak badu gero bere izena.

PAKO: Bixtan da, Jaun Mera, ez dela izenik gabekoa, zure semea... Ez dut ez gaxtakeriaz deitu Xixon.

MERA: Bon... Hemendik aintzinarat deituko duzu Ttotte, eta ez bertzela... (*Semeari*) Zertarat jina haiz hunarat?

XIXON: (*Dena grimas*) Aita... Erbia, erbia, nik ikusi... Fite, fite... Tau, tau...

MERA: Erbia ikusi?... Ez duk oraino ihizia idekia... Hago oraino, zenbait egun; gero tiro bat emaiten ahalko diok.

PAKO: (*Irri larri batekin*) Anartean, emok buztan azpian gatza... Beharbada bilduko duk.

MERA: (*Kexu*) Pako, leuntxago ez zintazkea mintza haur huni?

PAKO: Haur horri, haur horri... Xixon, edo... hori ez da haurra... Ihiziko permisa hartzen duen gizona, haurra zautzuia? (*Irriaz*) To, beharrik erbiek ez zakie nor duten ihiztari... Eta... errak, Xixon —ha, ez zezakeat ba Ttotte erran— errak, zoin begi hesten duk tiro tiratzeko?... Ezkerra edo eskuina?

XIXON: Hau naski. Edo ez, bertzea... (*Begiak aldizka tapatuz, bera ezin kar-kulatuz ari da*)

PAKO: Zozoa! Tapa-aitzik biak. Hola hobeki ikusiko duk. (*Xixonek obeditzen du... Bera, irriz lebertua*)

MERA: Ttotte, haugi enekin kanporat! Eta zuk, bertze aldi batez, ez baduzu errespetu gehiago ekartzen jende malurusari, enekin izanen duzu afera.

MONSIEUR PHILIPPE: (*Lanoki*) Gauden ixilik. Berex zaitze sumindu gabe... botzak ere hor ditugu, eta, zenbait ez liezke guti lorian, ikusiz nahasiak gabiltzala.

MERA: (*Beti kexu*) Berdin zauzkit bertzeen sentimenduak... Holakoek beharri ondoko batzu merezi dituzte.

XIXON: Aita, erbia... fite, fite.

MERA: Ba Ttotte, goazen hemendik. (*Pakori*) Xantza duzu giren tenorean baigira... Bertzenaz, zure buru aintzinegi horrek bero-aldi bat har bailezake. (*Jalitzzen dira*)

PAKO: Ha, hola duzuia errespetatzen botz emailea. Ostalertsu, ekazu hunarat xuritik edaterat. Ez dut gorritik gehiago deus ere nahi.

MONSIEUR PHILIPPE: Ez ahal zira, ez deus batentzat, beren ideiez aldakor diren hetarik.

PAKO: Errazu nahi duzuna... Biba zuriak!... (*Edaten du*)

MONSIEUR PHILIPPE: Libro zira nahi duzunari botza emaita, bainan zure onetan, oroit zaitte ondoko egunez.

PAKO: Biba zuriak!

MONSIEUR PHILIPPE: (*Idorki*) Ontsa da... Zure gerlako pentxionearen biltzeko, hatzemanen ahal duzu nitaz bertze adixkiderik... Egin-zkitzu zure gogoetak. (*Jalitzzen da*)

PAKO: (*Bakarrik*) Nola den haatik. Bertz'orduz, nehork ez dautet kasurik ere egiten. Pako mozkorra, Pako nahasia erran-eta, denak kito dira enekin... Bainan, heldu da bozkatzeko tenorea, ez



da orduan erregerik ni baino ohoratuagorik... Aintzin egu-
netako zorria denak agurka dabilkate. Hortako balia gaiten
egun hautaz. Ase gaiten bertzeen gostuz... Gure beharretan
baitituk, beha diezotegun goratik. Izanik ere ni, munduko
kreaturetan trixtena, edariaz daldaran daukaten eskuaz emaiten
dudan botzak, bertze edozoin gizonena balio du... Gizonak
berdin dituk sortzean, hiltzean eta botza emaiten. Ha zein
goxo den hola jaun handi batzuen, zure eskale bilakatuak,
ikusteak!... Pena da ez baitira bozkatzeak maizago.

JUSTINA: (*Kanpotik*) So astoa, so!... (*Sartuz*) Hela, badea norbait?

PAKO: Te, Justina, zeinu sariketan, bere astoarekin... (*Justinari*) Agur Justina, ene schi laguna.

JUSTINA: Zerendako niz zure schi laguna?

PAKO: Ene schi laguna zira, nik jaun erretoraren ahuntzak zaintzen ditudalokotz... Zuk aldiz, andere serora eliza garbitzen, aldarea apaintzen eta ezkila joiten... Beraz, nagusi beraren zerbitzari girelakotz. Haatik, goiz huntan, ez naiz zutaz kontent.

JUSTINA: Zerbeitetan, huts egin dautzuta?

PAKO: Ba. Zuk, Justina duzu izena, bainan ez duzu izen hori merezi, ez baituzu «justu» ezkila joiten. Goiz huntan, ahuntz alatzerat joaiteko ideia nuen zortzitan xuxen... Bainan, zuk berantegi zeinua jo duzulokotz, nuzu tenore huntan oraino hemen kausitien.

JUSTINA: Zeinua? Bortz minuta gora behera, beti tenorez xuxen joiten dut.

PAKO: Ba, eta minuta horiek aski ni denetan makurtzeko... Errazu, zuritik edo gorritik edaterat sartua zira?

JUSTINA: Ez naiz edaterat jina... Hori zuretzat uzten dut, ni zeinu saria biltzen nabila.

PAKO: Jaun erretorak, batere gizon balitz, behar laizuke bizitzekoa eman, hola eske ibil-arazi gabe.

JUSTINA: Ez dut jaun erretorarentzat ezkila joiten, bainan herriarentzat... Herritarreri da ni saristatzea.

PAKO: Hoinbertze diru biltzen baitu igandeko esketan, zer egiten ote du horietaz guzietaz?

JUSTINA: Hainitz emaiten dakozuia zure partetik?

PAKO: Zu bezalako bat pagatzeko, aski biltzen ahal du.

JUSTINA: Zu haztekorik ez balu aldaratu behar, hura gehiago luke segurik.

PAKO: Zuri guziak berdina dira... Denak beretako nahi dituzte, eta bertzendako... ondarrak... Zu ere, heien alderdikoa zira. Hasteko, zure uda-parte zainuarentzat biltzeko, astoa Gregoriorik prestatzen dautzu.

OSTALERTSA: Ez zozula kasurik egin Justina... Ori zure saria!... Hau moltsako eta hau (*botoila bat*) kafe ondoko.

JUSTINA: Milesker hainitz... Segur izanen dute enplegu.

PAKO: Errazu, schi lagun gisa, kafe ondoko horrentzat gomitatuko ahal nuzu?

JUSTINA: Ez, ez da hori zuretzat on... ur benedikatutik baita hor.

PAKO: Are eta hobeago... Beharbada konbertituko nauzu, hortarik edaterat emanaz.

JUSTINA: (*Jalitz*) Huna jaun erretora nun heldu zautzun konbertitzerat. Mugitzen ahal zira.

PAKO: (*Xutituz*) Ha, debrua... Segur, ahuntza eta pittikak atean ikusi ditik.

ERRETORA: (*Zukar botza kexu bat, urrundik*) Errazu, Justina, Pako ostatuan dea?

JUSTINA: Uste dut hala ditaken.

ERRETORA: Errozu otoi, ez dudala manatu ahuntzak ostaturat joan ditzan, bainan larrekirat.

PAKO: (*Abapetik*) Baietz, baietz, eremanen ditudala larrekirat, eta, ez bada kontent, zakurraren ipurdirat. (*Jalitzen da*)

ERRETORA: (*Botza burbilago*) Gizon trixtea zu... Arnoak zitu galtzen. Urratsik ez baitakizu egiten ostatu zikin horietan sartu gabe... (*Ahuntzak mee-ka*)

OSTALERTSA: (*Bakarrik*) Ostatu zikinak... Ostaturik ez balitz, ttipi laitekea mozkorren nonbrea?... Ni ez segur... Guk edatekoa eskaintzen dugu eta ez mozkortzekoa... Hunarat sartzen direnek har bezate izaria... Te, kasu... Horra zuriak heldu: Arotza eta Gregorio eiherezaina. Bat mera eta bertzea axuant gaia. Oixtian gorritik eta orai zerbitza dezagun zuritik.

AROTZA ETA GREGORIO: (*Sartuz*) Agur Kattalin!

OSTALERTSA: Agur jaunak... Heldu zireztea, besteak bezela zuen planen tiratzerat?

AROTZA: Ba... Eta, pentsatzen dugu, zu ere gure adixkidetan kondatzen ahalko zitugula...



OSTALERTSA: Nik ez dut, zuen artean, adixkidez bertzerik.

GREGORIO: (*Jartzen direla*) Ene konduak eginak ditut. Aurten, gorrien arbolak erroz gora joan beharko baitu.

AROTZA: Joan den aldian, ustel horiek nausitu badituk, gure falta ere baduk... ez diagu aski ontsa botzetako untzia zaindu... Bazkari denboran, berak bakarrik zirelarik egin die jukutria... Untzia ideki... Barnetik, hamar bat botza guretarik kendu, eta bereneta ordaindu.

GREGORIO: Aurten ez daukutela holakorik eginen, segur izaiten ahal zira... Nihaur egonen bainaiz egun guzia, erne ernea, untiaren aldean. Eta, hanbat gaxto berak aldaratzen badi-re untiaren ondolik... Hamar bat paper, prest presta, saketan beiratuko baitituz, azken aldiko botzetan ebatsien ordaintzeko.

AROTZA: Gure beharrez, batzuk urrundu behar badugu ere untzitik, bertzeak han dagotzila...

GREGORIO: Zaude deskantsuan... Han izanen naiz kasu egile.

AROTZA: Eta?... Mintzatu dituka kanpañarrak, eiharako itzulia eginetz?

GREGORIO: Ba... Bakarrak erran diozkatet botigesaren kontra... Heien diruz dela aberasten... Ez duela hetaz axolarik eta ez ere, heien aferetan, deus konprenitzen.

AROTZA: Botiges zikina... Ez ziroiat irets iturri hori zertako kendu daitaten ene etxe aintzinetik. Ezarriko diat ba nik iturri hori bere lehengo lekuan.

GREGORIO: Errekatxarrekoeri zubi berri bat hitzeman diotet pasatzen bagira eta Gaztain-aldekoeri bidea harriztatzea...

AROTZA: Ontsa duk... Errak, eta,... entzun duka jaun erretorari, elizako teilatua erreparatzea hitzeman diotela?

GREGORIO: Mesfidatzen hasia naiz ez ote dugun bederen jaun erretora horien alde.

AROTZA: Jaun erretora gorriekin?... Baduka burutik?

GREGORIO: Berdin... Horiek zerbait agintzen badiote, eta guk deus er'ez.

AROTZA: Bon... Guk ere elizako teilatua erreparatuko diagu ba... Eta, gainerat, zer pretenitzen dik?

GREGORIO: Aisienik, nik uste, gure alde bil ginezake, gauazko balak herrian debekatuko ditugula hitzemanen.

AROTZA: Bon... Ask diok hori erraitea ahapetik... Jendek haatik holakorik ez dezatela jakin, bertzenaz baiginizkek, hortan ere, kontra liezkenak.

GREGORIO: Justinari hitzeman diot herriak pagatuko duela, pasatzen bagira, eta Pakori ere, herriko langiletzat hartuko dugula.

AROTZA: Hainitz hitzemaiten diagu... Hitzaren atxikitzea izanen diagan lan.

GREGORIO: Behingoan botzetan pasatzea behar dugu xerkatu... Ondoko egunetan, zerbait estakuru beti hitzeman ditake hitzaren ez beiratzeko. Bertzek ere hala egin izan dute.

AROTZA: Ontsa duk... Bertzalde, ihiziko batasunaren menbro haizenaz geroz, ez dituka, zerbait gisaz, ihiztariak hire ingururat biltzen ahal egun hautan?... Horiatarik ere baginizkek botza zenbait.

GREGORIO: Zaude deskantsuan! Ez ditut ahantzi. Ihiziaren idekitzeko pesta handi baten muntatzen ari naiz... Eta, badakizua nor dudan sustengatzailerik errabiatuena?

AROTZA: Nor?

GREGORIO: Xixon ardita hori.

AROTZA: To... Gaizo abila... Bon, bon... Irri egiteko lagunak ere on dituk... Eta, badakika noren ondolik, bihotza pilpil, abiatua den tetele hori?

GREGORIO: Noren ondolik?

AROTZA: Gure Bertaren ondolik.

GREGORIO: (*Irriz*) Zure alabak Xixonen gutzia ahal du...

AROTZA: Badakik nolakoa den Berta... Maltzurkerian laket baitzaio, nahi duen guzia egiten dik Xixonekin.

GREGORIO: Gaizo Xixon! Urrikari dut zuen Bertaren aztaparretan.

AROTZA: Ba, ba... Gure neskato deubrusa hori, harekin jostatzen duk, gatua saguarekin bezala.

BERTA: (*Leibotik*) Aita.

GREGORIO: (*Irriz*) Te, huna Berta... Nor baita aipatzen eta hura agertzen.

BERTA: Gero erranen duzue emaztekiak direla bakarrik bertzen jorran hartzen.

AROTZA: Ez gintunan nehoren jorran ari... Sar hadi hunadino.

BERTA: Ez, aita... Petraeneko idiak ferratzeko hor direla, erraiterat jina nintzen.

AROTZA: Bon... Badine astia xtant bat... Sar hadi. (*Sartzen da*) Erran... Xixonez ari gintunan... Hik, nahi dunana egiten baitun horrekin, guri botza emaiterat behar huke bildu.

BERTA: (*Irriz*) Gaizo Xixon! Ez nintake etxetik ere jali... Beti tete bezala, gibeletik dut... Orain ere; ikusi bainu hemen sartzen, nahi



duzua laster hemen dela?... Bai, hori bederen lagun fidela dudala... Ez du ene amodioa, bainan ene eritasuna.

GREGORIO: Ez duzu on guti, plazer hartzen.

BERTA: Batzuetan jostagarri da, bainan bertzetan akigarri.

GREGORIO: Jaun Meraren semea da gero... Seme bakarra... Ontasunak iguzkitan dituena... Ez zintezke batere gaizki horrekin.

BERTA: Ez nuke beti bertzetarat ala dadien beldurrik.

GREGORIO: Behin beti, har zazu diruarengatik... Gero, salda beltzatik zer-bitzatzen badiozu ere.

BERTA: Salda beltzatik?... Zer da hura?...

GREGORIO: Salda azkar bat duzu hura... Hura edan-eta ez omen da gehiago iratzartzen.

BERTA: Gizagaizoa!... Aise emaiten duzu zuk jendeeri despeirako tratamendua.

GREGORIO: Ori... Huna nun bera heldu zautzun.

BERTA: Ba, ez zen dudarik, laster agertuko zela nunbaitik. Kea suari bezen jarraikia baitzaut. (*Xixon sartzen da, deus ere erran gabe, eta Bertari loriatua plantatzen*)

GREGORIO: To, hor hiza, Xixon. Errak, fama gaitza entzuna diat hiretzat... Egia dea hi eta Berta laster ezkont zireztela?

BERTA: (*Irriz*) Ba, hilabete hunen seigarren igandean. (*Xixon, Berta, begiz jan nabi duela, ondorat hurbiltzen zai*)

GREGORIO: Errak to, serioski goberna hadi. Aita beharra hemen duk gero... To, edazak, guk bezala, zorta bat zuritik.

XIXON: Ez... Aitak ez nahi...

GREGORIO: Zer nahi dik ba, aitak, gorritik edatea?

XIXON: Ez bat'ere.

GREGORIO: To... Hiri kalte egiteaz beldur duk, dudarik gabe... Ez dik haatik beldurrik bere buruarentzat... Nahi-uka, to, hoinbertze ez hurbildu neskato horri?... (*Xixon Bertari beha dago adorazionean bezala*) Pollita duk hori ba?... (*Bertak eskua mahainean baitu, Xixonek nabi lioke hartu... Bainan, Bertak kentzen dio*) Jes, utzak hori bere gisa, mutikoa. Edo hasian hasi, emok potta... Bainan, haatik, xuka-aitzik lehenik ezpain horiek. (*Xixon ezpaineri torraka*)

BERTA: (*Ezतिकi*) Ez orai, Ttotte... Sarri ba... Ez zozula kasurik egin gizon horri... Gure jelos da... Guk biek arras ontsa elgar konprenitzen baitugu... Ez dea hola?...

XIXON: (*Irri zozzo batekin*) Ba, ba, ba.

BERTA: (*Xutituz*) Bon, ni banoa... Errazu, aita, ez ahantz idiak hor dituzula ferratzeko. (*Xixonek segitu nahi du*) Ez, zu zaude hemen Ttotte... Berritz jinen nuzu... (*Xixonek obeditzzen du, kara trix-tatua*)

GREGORIO: Errak, Xixon!... (*Hunek ez du entzuten ere; botza azkartuz*) Errak Xixon! (*Xixonek jauzi*) Kasu emango duka?... Errak, laster baitugu ihiziaren idekitzea, pentsatzen diat gurekin jinen haizela... Oihanean omen duk zer-nahi erbi eta basahauntz.

XIXON: (*Loriatua*) Pan, pan, pan... Ba, ba...

GREGORIO: Pan, pan, ba... Nihaurek postatuko haut... Eta, emanen daiat posta bat hautua.

XIXON: Ba, ba, pan, pan...

AROTZA: Ba, pan, pan, bainan gero guretzat botza emaitokotan haatik...

XIXON: (*Loriatua*) Ba, ba, ba... Pan, pan.

AROTZA: (*Xutituz*) Bon, hi, erranak erran... Banioak afitxa eta paperez arta hartzerat.

GREGORIO: Ba, eta maiz-maiza askiko dugu elgar ikusita... Badakizu, botzetan Jainkorik gehiago ez dela, eta edozoinen ahotan gezurra eta urdekeria kurri direla.

AROTZA: Zer erran gogo duk?

GREGORIO: Ez zirea oroit, azken botzetan, nola zikindu zintuzten?

AROTZA: Hala duk hori ere... Azken mementoan ez zakiat nungo ustelak jali zian fama, gauaz, ohez tronpatzeko usaia nuela...

GREGORIO: Ba... Eta, oraikoa, fama berdintsu bat entzuten baduzu, ustelen gain jakinen duzu Gregorio eiherezainak badakiela irinaz bertzerik nahasten (*Irriz*).

AROTZA: Hihaurek ikusak... Haatik, zuhurki joka gaiten.

GREGORIO: Bego hori ene gain.

AROTZA: Bon, heldu hiza, edo hemen gelditzen hiza?

GREGORIO: Ez... Heldu naiz, ni ere... Agur Kattalin!

OSTALERTSA: Ba, agur jaunak! (*Xixon*) Zu, hemen egoiten zirea?

XIXON: Ba, Bertak errana...

OSTALERTSA: Segura da, hori, Berta oroituko dela zuri erranaz... Bon, bon... Zaude nahi baduzu... Jainkorik ez dela botzetan... Zer gezur behar ote dute jali orai, berritz ere? Ha, zer nahaskerien segida.

PAKO: (*Sartuz*) Heup, Kattalin! (*Mozkor botza abiatua du*)

OSTALERTSA: Heldu zirea, zu, berritz ere hunat? Nun duzu artaldea?



PAKO: Ahuntzak ezarri ditut pazkan... Xuxen ahal da heien zaintzaleak bertze hainbertze egin dezan? (*Xixoneri*) To, hor hiza hi ere. Zer hago?... So nor k ontsa finituko ote hien? Ez dik balio, ez... Engoitik, hire eskasarekin beharko duk ibili... Haugi hunat, zozoa, jar hadi hor.

XIXON: Ni, ez zozoa.

PAKO: Ez, ez... Ez haiz arras hala... Hamalaua duk bakarrik eskas, teilaturaino finitua izaiteko... Errazu, Kattalin... Ekazu hunarat edaterat. Urririk dugunaz geroz hotela, botzeri esker, hotelean egongo naiz, jali gabe, botzak bururatu artio... Eta, ez ditut bi hiru mozkortze egingo egun hautan, bainan bat bakarra, buruen buru. Atertu gabe, saka-ahala-saka, tripa zolari euria igorriko diot... Ekazu hunarat edaterat!

OSTALERTSA: Gorritik edo xuritik?

PAKO: Ekaitzu pinta bat bederatik. Hola eginen dut bi eskualdeen konplimentua.

OSTALERTSA: (*Zerbitzatu*) Nago, zuria eta gorria, zuk nola akomodatzen dituzun tripa hortan.

PAKO: Akomodatzen ditut ahal bezala, eta, ez badute akomodatu nahi, biak kanporat igortzen. (*Xixoneri*) To, har-zak, hik ere, baso bat, eta haugi edaterat. Berdin, hire etxeko moltsatik pagatua duk edari hunen erdia.

OSTALERTSA: Ba, eta bertze erdia, horren etxe beharreko moltsatik.

PAKO: Nolaz hori?... Gorria da hunena. Zuriekin ez du deus ikustekorik.

OSTALERTSA: Ha, ez dakizua berria?

PAKO: Zer berri?

OSTALERTSA: Arotzaren alabarekin abiatua dugu, eta, ustez, aferak frango aintzinatuak ere dituzte. (*Xixon loriatua, baietz dio grimaska*)

PAKO: Zer? Hori ere baduguia? Errak, ez hiza beldur neska itsusi horren emaztetzat hartzeko? Neska hori, mutikoa, bekatu mortala bezen itsusia duk.

XIXON: (*Satnur... Botoilaz jo nabi du Pako*) Ez... pollita, pollita, Berta.

PAKO: Ez nezakela jo, mutikoa!... Botoila hori pausazak... Bon, bon pollita duk beraz... Bertze aldi batez hobeki behatuko zioiat... Deubrua! Aski duk guti, hik ere, botoilaz burutik behera emaiteko... Ha, beraz, Bertarekin duk hire hastapena... Ba, funtsean, hire eskasa haren soberakinak tapatuko dik... Edo, beharbada, dukan on poxi hura galaraziko dauk. Deubrusa baituk neska hori, deubrusa.

XIXON: (*Botoila eskainiz*) Ez, ez da deubrusa.

PAKO: Mutikoa, botoila hori utzak bere gisa... Ez dik balio samurtzea horrengatik. To, ikusten duk baso hau. Hunarat ixurtzen ditiat zuri zorta on bat eta gorri tintta bat bakarrik. Baso huntako edariak zuen ezkontza iduri dik... Zuria bat eta gorria bat'erez baitituk baso huntan, halatsu izan zirezte zuek biak... (*Irriz*) Berta, ba, biligarro pollita... Eta hi zozoa... Ha, zer ohantze baliosaren bezpera duzen.

XIXON: (*Berritz ere jazarriz*) Ni, ez naiz zozoa.

PAKO: Mutikoa ezti hadi... Ez duk arrazoinik eni jazartzeko. Hi argitzen ari nuk... Aparantziak emaiten ditiat bakarrik hire ezkontzari. Zozoa hizala erran diat... Ez daiat erran pika buztana hizala... Baduk hi baino beheragorik.

OSTALERTSA: (*Xixoneri*) Errazu, Ttote, Berta hor ikusten dut pasatzen... Segidan jaliz aurkituko duzu, hura nahi duzunaz geroz ikusi. (*Xixon jalitzen da, ukailna erakutsiz Pakori*)

PAKO: Ha... Ez dela errex egiaren buruetan sar araztea lur huntan... Bizkitartean, egiak erran daizkot.

OSTALERTSA: Egitik bizi gogo balin baduzu, hobeko duzu zure aintzineko botoilekin mintzatzea, ezenetz-eta gizonekin. Hobekiago jaliko zira.

PAKO: Ene aintzineko botoilekin mintza?... Zer diotet erranen?... Bat, xuritik da, bertzea gorritik.

Xuria, apez arnoa... Horrek badik begitako grazia bat, gorriak ez duena... Bixkotxekilako arnoa. Horrek badik ere bere esker, bere garbi, bere handikari berezia. Jateko leunekin zerbitzatzen dena, norbait direneri noiz-nahi eskain ditakena, ohorezko arnoa, andere gazte kriketa, arno xuria.

Hi berritz, gorria... Iluna hizalakotz, irri gutiago duk hire begitar-tean... Erakina izan hizalakotz, motelago eta hilago hiz. Eskas duk bizia- ren ñirñira, zalapartaren kirkira... Gaizo arno gorria. Edozoinen arnoa... Jateko larriekin hi hute usatzen... Egun guzitakoa, mutur zuri eta esku finek guti hute perekatzen. Ez izanik ere igandetakoa, halere ederra hiz,



sanoa, sustengorra, zerbitzari leial zaharra, arno gorrial
Orai, Kattalin zoin iduritzen zautzu dela gomeni enetzat:
zuria edo gorria?

OSTALERTSA: Holakoaren jakin nahian bazira, galdeozu xehetasun Kose-ri. Horra nun duzun heldu.

KOSE: (*Kexu*) Agur... Asto madarikatu ustela. Egiazki bere nausiaren astoa duk ba hori ere?

PAKO: Zer duk, mutikoa, zer duk hoin kexu?

KOSE: Ez ziroiat gehiago kridarik egin, Gregorioren asto zikin horren errefera ukan gabe...

PAKO: Hori bertzerik ez baduk, arras aise xuxen ditaken makur bat duk hori.

KOSE: Nahiko nitek jakin nola...

PAKO: Arras errexi... Astoek beren orroa bota aintzin, altxatzen die buztana... Esteka-zok astoaren buztanari karga bat... Hola ez dik buztana altxatzen ahalko, eta, beraz, bakea emanen dauk bere orroekin.

KOSE: Nahi nitek bakea eman baheza hire zozokeriekin, ez bainuk bate-re jostakor... Errazu, Kattalin, arno xorta bat otoi.

PAKO: Errak, hi, lausoa, hire lau begiez, guk biez baino hobeki ikusten omen baituk, noren alde hiz: zurien edo gorrien?

KOSE: Kattalin, ekazu hunarat ene arnotik... Eta hik, Galiziano umea hi, hire mota hango jende tzarretik baituk, nahi baduk pixka bat argitu, habil oraintxet pausatu ditiaten murru paperen irakurtzerat.

PAKO: Zer gezur jalitzen diozkatek botz emaileri hire murru paperetan?

KOSE: Gu, bakea, ogia eta libertatearen alde gituk, eta jende xehearen alde. Hi, ez zakiat batere ez hizen gu saltzen ari... Mesfidatzen nuk hitaz, hor apez zerbitzari sartua hizanaz geroz.

PAKO: Hiri ere, herriko mutil sartuz geroz, galon txar bat bildu dukala eta, ezin ixilduzko kalaxka bat jali zauk apezken kontra... Aski heien gibel milikari hintzen bizkitartean denboraz, herrian xantrekoa egiten huelarik... Jaun erretorak, elizako arnotik edaten hatzeman-eta, kanpo emanez geroztik, iduri duk iragan denboraren aipatzeak berak min egiten daukala.

KOSE: Ez nuk ni behin ere apezken bandakoa izan... Heiekin nindukelarik ere, botza gorrieri emaiten nian... Jende xehearen alde nuk ni eta segitzen ditiat kazetak.

PAKO: Zer segitzen duk kazetetan?

PAKO: To, hi ez haiz segurik hala... Ontsa eginen huke hire begi lauso horiek emazteari hobeki largatzen bahizkio.

KOSE: (*Izjgarri kexu*) Hik zer duk erraiteko ene emaztearentzat?

PAKO: Jendek ziotekena deat nik bakarrik aipatzen. Hire emazteak frango maiz bere eriko eraztuna ahanzten duela.

KOSE: Gezurra duk hori... Gezur zikin bat... Saltsa nahasle ustela hi. Hi bezalakoeri, nik, muturra berotzen zioteci.

PAKO: Zer dauk?... Egiak min egiten?... Ez nuk ni penaren egile, bainan erraile bakarrik... Hire makurra nahi baduk xuxendu, jazar hadi grefierari eta ez eni.

KOSE: Zer erran nahi duk... Mr. Philippe eta ene emaztea?...

PAKO: Dudatzen ahal haiz zerbaitetaz?... Hemen bakarra hintekez ez laki-kenik... Zertako uste duk grefierak lauzkatu hauela, herriko mutil sartzen?... Hire bertute zorrotzentzat ote?... Edo, hiri herria zaintaraziz, harek hi hobeki zaintzeko?

KOSE: (*Papotik lotuz*) Gezurra duk hori... Zuri banda zikinak jalikako gezurra...

PAKO: (*Borrokatuz*) Ez duk ene falta partzuerkoan ari bazirezte lanean, herriko mutila eta grefiera.

OSTALERTSA: Ale... Bakea biek!... Eta zoazte kanporat... Kanpoan xuriazue zuen boketa... Ostatua errespetatuz... kanporat!

KOSE: (*Borroka jaliz*) Ustel buhamia... Galizianoa... Hi bezelakoak ito, zintzurretik ito behar likeie.

PAKO: Utz nezak nere gisa... Ez nuk gero batere hire beldur.

OSTALERTSA: (*Atea betsi-eta*) Hau jende errabiatsuak... Saltsero tzarrak... Barne huntako kalapita guziak heldu dira edo arnotik edo emazteen gainetik edo politikatik. Botzak ba... Bon, behar direla nahi dut... Bainan zonbat buru galtze, horientatik!

OIHALA



BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Kanpo bat... Sasi, arbol, zinaurri lur meta bat, jartzeko edozein altura. Oihala idekitzean entzuten dira urrun ihizi harrabotsak: zakur, tiro, tuta.

GREGORIO: *(Ihiztari bezti agertuz)* Haugi hunat. *(Xixon berdin bezti agertzen da)* Hemen izanen duk hire posta... Eta orai, nik emanen daiaztatzen xehetasuneri, ontsa beharriak idek-aitzik... Postatuko haiz hementxet, zinaurri lur meta hunen ondoan... Holaxet, to... Haatik kasu emak zinaurri lur meta hau ez dezakan kitzika, zinaurriak ez daiten jali... Ikusten duk hortxeko bi arbolean arteko xendra hori?... Hor pasatuko diren ihizi guzieren tiro emanen diotek: edo erbi, edo bas-ahuntz, edo basurde.

XIXON: Eta basa lapinak?

GREGORIO: Basa lapineri ere ba... Izanen dituk zakurrekin, urrundik ihizien igortzaleak, postatu ihiztarictarat.

XIXON: Eta azeriak?

GREGORIO: Azeriak ere hil-aitzik... Bainan ez diat uste azeri hiltzeko lanik ukanen dukan.

XIXON: Eta azkonak?

GREGORIO: Ba, azkonak ere hil-aitzik... Bainan nekez duk azkonik hemen egun iraganen... Tiratzeko ihiziak izanen dituk bakarrik: basa lapin eta erbiak; beharbada zenbait basa ahuntz... Agian basa-ahuntz baten hiltzeko xantza izanen duk... Ohore bat lukek hiretzat.

XIXON: Basa ahuntza, pan, pan...

GREGORIO: Ba... Ikusten baduk bat, ez zakala huts egin... Bon, konprenitu duk bederen ontsa... Ean, zer eginen duk, hor pasatzen baduk erbi bat?

XIXON: Pan, pan, pan...

GREGORIO: Ontsa duk... eta basa lapin bat?

XIXON: Pan, pan, pan...

GREGORIO: Arras ontsa... Eta bas-ahuntz bat?

XIXON: Pan, pan, pan.

GREGORIO: Hale eta hobeki... Uzten hut beraz hihaure... Ez hadila hemendik mug, ni berritz jin artio... Kasu emotek haatik zinaurri hauier... Eta ean basa-ahuntz bat hiltzen dukan?... Xantza on, to...

XIXON: Bas-ahuntza, pan, pan, pan...

GREGORIO: Ni banioak. *(Jalitzzen da)* *(Xixon bakarrik dago. Urrun entzuten dira beti ibizki burrunbak... Egiten du lehenik tokien itzulia. Betetan erne ernea plantatzen da... Ez, ez da pitsik... jartzen da... Berritz ere zer bait entzuten duke... Etxanik aztaparka kurritzen du)*

BERTA: *(Gibeletik ixil ixila hurbiltzen zaió, irri trufa batean... Ederki bezti da... Oihu egiten dio)* Heup, Ttotte!

XIXON: Ai, ai, ai! *(Oihu karrasia bat botatzen du... Daldaran dago ikaretan bainan, halere irriño bat egiten du, Berta ezagutu eta)*

BERTA: *(Ezतिकi)* Zer ari zira hola hemen?

XIXON: Ihizin, ba, ihizin... pan, pan, pan.

BERTA: Hil duzua pitsik?

XIXON: Ez... ez ikusi.

BERTA: Nun duzu hemen ihizien pasaia?

XIXON: Hor... ba, ba, ba...

BERTA: Ho... Nahi zintuzket ihizi zombait aurtikitzen ikusi... Egoiten ahal niza hemen?

XIXON: *(Loriatua)* Ba, ba, ba.

BERTA: Bon... hementxet jarriko naiz. *(Alturan jartzen da)* *(Xixon dudamudan dago, ean ihiztari edo Bertari duen kasu emanen. Azkenean Bertaren ondoan jartzen da, arma bere sabetsean pasatuz... Ez daki zer egin... Elgarri so egiten dute eta irri bizpahiru aldiz... Bertari paxi bat hurbiltzen zaió)*

BERTA: Hainitz maite nauzua Ttotte?

XIXON: *(Loriatua)* Ba, ba, ba...

BERTA: Nik ere ba zu.

XIXON: *(Bertaren ezpainak erakutsiz)* Zoin pollita, gorri-gorria!

BERTA: Zer?... Ene ezpainak?... Nahi dituzia zureak ere berdin gorri?

XIXON: *(Loriatua)* Ba, ba, ba...

BERTA: Zaude... Gorrituko daukitzut. *(Gorritzekoarekin gorritzen daizkela)* Ean hola... Luza-azu ezpaina. Eta orai hola. Bon ontsa da... Biziki mutil pollita zira. *(Loriatua, Xixon ez dauke grimaska...)*



Berritz ere, elgarri so eta irriz egoiten dira apur bat... Azkenean, Xixonek, nabi lioke Bertari eskua hartu, bainan hunek ez konprenituarena egiten dio) Zer nahi zinuen ene eskutik? Zer duzuia?... Zerbait eskas?

XIXON: *(Irri xoro bat)* Behatzak ere gorri... Ba, ba...

BERTA: Ba, bon... behatzak ere ezpainak bezala nahi dituzuia? Ekaitzu, gorrituko daukitzute... *(Gogotik gorritzerat uzten du, grimas batzu egiten dituela. Gorritze horrek kilikatzen balu bezala. Xixon ez baitaue gehiago, azkenean eskua hartzen dio eta han sekulako pottak emaiten) (Bertak eskua erretiratu ezteki) Alo... Ez zatzula esku horrekin ezpainak hola hunki... Gorri guzia kentzen baituzu. (Xutituz) Bon, ni aintzinarat joanen naiz... Zuk aski duzu ihizia segitzea... Ha, zenbat zinaurri diren hemen!... So egizu, zinaurri lur meta harrotu dugu. Kasu emozute alimale tzar hoieri... Bon, adio. (Urruntzen da... Xixon jarraikitzen zai) Ez, ez... Zu zaude hemen... Egin-azu ihizia... Agian basa ahuntz bat hilen ahal duzu... Hura laitake ene plazerrik handiena.*

XIXON: Bas-ahuntza, ba, ba... Pan, pan.

BERTA: Sarri artio beraz.

XIXON: *(Trixatua egoiten da ixtant bat... Arma hartzen du... Zinaurriak abiatuak ditu gorputza gora... Zalapartaka beien kontra lotzen da) Puuu... zinaurriak... Ai, ei, ai... Zinaurri gorriak!... (Betbetan entzuten da ahuntz baten marraka... Mee... Bere arma espaldan, erne ernea plantatzen da... Berritz ere marraka batzu... Eskuin eta ezker dabila, ihizia hobeki ikusi beharrez... Azkenean ba, noiz-bait, tiro emaiten dio)*

PAKO: *(Oihu alimale batzuetan, agertuz) Eheup!... Zer da botiga hau?... Nungo asto handia ari da hor tiroka?... Ha, hi hintzena?... Zozo buztan umea, hi! Noizetik hunarat etxe ahuntzak ihizatzen dituk. He?... So egizak zer egin dukan?... Jaun erretoraren pittika hil duk... Pittika ba hil... So egizak... Nahi dukan bezala afera xuxenduko duk jaun erretorarekin... Ez dik balio ez, hor harritia egoitea tente potente, hire arma tzarrarekin... Hasteko ekar-ak eni arma hori... Ez haiz hi on arma baten ibiltzeko.*

XIXON: Arma, arma, ez... Arma enea...

PAKO: *(Bortxaz kentzen diola) Ekarrak ba hori hunarat... Haizen bezalako tipul burua!... Eta, arma hau berritz bildu nahi baduk, aski-*

ko diok aitari galdatzea... Nik, haren eskuetan ezarriko diat... Hik egin zak nahi dukana. (Urruntzen da)

XIXON: *(Bakarrik... Bulta bat egoiten da, grimaska, zozotua bezala... Gero lotzen da bazka...)* Ha, zinaurria, zinaurri gorriak. *(Bere buruari zinaurri kentzen ari da bulta bat, batean «zinaurriak» apaletik diola, bertzean orroaz. Zinaurrieri buru egiteko kentzen ditu emeki, soineko arropak oro, salbu galtzak... Azkenean, beti orroaz, badoa sasi gibelerat eta sasi gainetik, barneko alderat aurtikitzen ditu galtzak ere... Haren oibnak urrunduz, galtzen dira)*

GREGORIO: *(Apur baten buruan agertuz) Jes... Tiroa zeri eman ote zio, mutiko zozo horrek? Ez zian ba hemen ihizi tiratzeko arrazoinik, gure sukaldean baino gehiago... Gisa hartarat postatua ere nian eta... Jes... Nun da gure gizona? Ez gehiago bere postan ere?... Ez direa hauk haren arropak? Puuu... Hau zinaurriketa... Jes... kartutxa kargatuak ere lurrerat aurtikiak? Zer gertatzen ote da hemen?*

AROTZA: *(Ihiztari bezgi agertuz) Ta?... Zer hil dik?*

GREGORIO: Deus ez dut konprenitzen... Bere arropak hemen ditu, bainan bera ez da hemen... So egizu puska hauieri? Zinaurriz itoak dira?

AROTZA: Ez ahal zaiok makurrik bederen gertatu tetele horri?

GREGORIO: Nik dakita? Dei dezagun... Errepustarik emanen ote duen... *(Oibuz) Xixon, Xixon! Ttote, O Ttote! (Bat er'ez errepustarik) Jes... Zer da?... Hila ote?... Ean deus hatzik ez dugun ba harrapatuko... (Harritia, sasi gainetik so) So egizu... So egizu horrarat... Jaun erretoraren pittika hila... (Jalitzen da)*

AROTZA: *(Sasi gainetik mintzo kanporat) Nola hila duk hori?*

GREGORIO: *(Kanpotik) Tiro bat ukana du, bularrean, hurbildik, so egizu, tiroa oso osoan hartua du.*

AROTZA: Hauze duk mixterioa... Arropak hemen eta jabea eskas... Armarik ez eta pittika armaz hila... Deubrukeria zerbait badukek hor.

GREGORIO: *(Berritz agertuz) Ez dute ba ihiztaria zenbait kabala basek bederen garbitu... Ean baden nihun odol hatzik. (Lotzen dira miaka)*

AROTZA: Xt, xt... Bi gizon hor heldu, gorde gaiten to.

PAKO: *(Apur baten buruan agertuz bizzi-bizzia mintzo) Ba, Jaun Mera... Horra nun zen postatua, ni horraxetan nintzen ahuntz alatzen... Eta, huna nundik hil duen pittika. Doietarik egin du, ez*



bainau nihaur harrapatu... Holakoeri, ez litzaikete ihiztatzeko paperik eman behar. Arma eskutik kendu diot, eta zureganat jin naiz segidan.

MERA: Ha, trixtea... Bainan nun da bera?... Jes, hauk ez direa haren arropak?...

PAKO: Nik ez dakit norat jo duen.

MERA: Bainan, bainan... Zer gertatzen da hemen?... Hemen bada zerbait behar gabeko... Kartutxak eta galtzak ere hor... Bainan, nor da hemen gordea?

AROTZA ETA GREGORIO: (*Agertuz*) Gu... (*Tira ahala kalapitan bar ditela*)

MERA: Zer ari zirezte hemen?... Nun duzue ene semea?

AROTZA: Eskandala... Eskandala bat da hemen gertatzen dena... gorri zikinak zuek... Zer egin dautzue apez gaixoak, hola haren pittikari jazartzeko.

MERA: Zer derasak?... Gu, zuek bezen adixkide gituk erretorekin.

AROTZA: Zuek, erretorekin adixkide?... Ba, deubrua ur benedikatuarekin bezala.

MERA: Ikusiko diagu nork bilduko duen haren botza?

AROTZA: Ba segur haren pittikaren tirokatzaileek.

MERA: Haren botza bilduko die, elizarentzat zerbait egiteko kapable direnek.

AROTZA: Zer nahitako zuen burua kapable daukazue, bainan nun dituztuzue zuen obrak?

MERA: Gure obrak ageri ahal dituk... Hala ez hiza ohartua, hire etxe aintzinetik iturri bat eskastu dela.

AROTZA: Ustel zikina hi! Zirtzilkeriazko obrak egiteko, ba, lehena haiz... Joan beharko duk erroz gora oraikoan... Eta ikusiko diagu orduan zer eskastuko den hire botigaren aintzinetik?

MERA: Zer egingo duk ene botigaren kontra?

AROTZA: Oroit hadi, herrian komoditateak eskas ditugula.

MERA: Horiek dituka ene botigaren kontra ezarri gogo. Jakin zak, hik ez badituk ezartzen erran lekuan, heldu den astetik beretik behar dena egingen duela, heien bertze nunbait ezartzeko... Arozteian ez baduk hol-hola usainik aski, hartarik zerbitzatuko haukula nasaiki eta merke.

KOSE: (*Sartzzen da bats bantua*) Ha, hemen zirea?

MERA: Zer da?... Zer gertatzen da?...

KOSE: Ttotte, zure semea... Ttotte, biluz gorri... (*Beti bats bantua, ezin erranez*)

MERA:Zer?

KOSE: Ba, harra bezala larru-has. (*Hats-bantua*)

MERA: Bainan, mintzatuko zirea garbiki.

KOSE: Ez dakit nolaz eta nundik... Zure semea plazarat agertu da larru gorrian... zakurrak saingaz eta haurrak harrika lotu zaizko, eta tira ahala hunarat buruz ihesi jo du... Jende multxo bat haren ondotik gabiltza.

MERA: Molde hortan mutikoa, bainan zer deubru gertatu zaio, orai berritz trixte horri?

KOSE: Ez dakit... Gehiago dena, ezpainak eta behatzak gorri gorrituak omen ditu. Nik uste, arrunt burua galdua duke...

MERA: Bainan, nun da orai?

KOSE: Ez dakit... Eskualde huni buruz hartu du, eta presuna handi zenbait haren gibeletik abiatu gira.

MERA: (*Arotzari eta Gregoriori*) Ustelak... Baliatu zirezte egunaz, zerbait jukutria tzar muntatzeko. Gutaz trufatu nahi izan duzue, haur gaixo baten medioz... Bainan kasu ondorioeri... Kasu erreferari.

AROTZA: Guk zer falta dugu hire semea burxoroa balin baduk? Hura xuxen-zak eta ez gu.

MERA: Holako elek beharri ondoko bat merezi likeie...

AROTZA: Emak hire beharri ondokoa, kapable balin bahaiz.

MERA: Gogotik ukan hezakek, ez banintz eskuen zikintzea beldur.

AROTZA: Jakin-tzak arotzak baduela hi baino asko beharri luze azkarra-goien eskolatzeko usaia.

KOSE: Te, te... Huna nun diren. (*Agertzen dira Xixon eta Berta... Xixon beztitua da Bertaren gaineko arropaz*)

BERTA: Hemen zabilan biluzia, iheska... Bildu dut, ondotik joanik... Eta, ene arropaz ahal bezala tapaturik, etxerat ekarki nuen.

MERA: (*Kexu*) Errak, Ttotte, nun habila hola hemen?... Zer dituk manera horiek?

XIXON: (*Zinaurriak erakutsiz ikaran*) Puuu... Zinaurriak... Zinaurri gorriak!...

MERA: Hik, hei, hil duka jaun erretorearen pittika?

XIXON: Ba... pan, pan, pan...

PAKO: Segur horrek hil baitu, ikusi ahal dut aski ontsa...

KOSE: Zenbat pinta arpo edanak hituen hori ikusi aintzin?

PAKO: Ez aski, hiri lau begien heina baizik ez ikusteko.

MERA: (*Xixoneri*) Bainan, trixtea, erranen dautaka zerendako hizan arroparik gabe?



XIXON: Zinaurriek, pik, pik... Nik arropak kendu...

MERA: Eta ezpainetako eta eskutako gorri hori nundik dituk? (*Xixonek irri gozo batekin, Bertari so egiten dio*) (*Mera arras kexu*) Mintzatu-ko hiza?... Esplikatuko dautaka, nolaz hizan hola gorritua eta biluzirik? (*Xixon ikaran*)

BERTA: Otoi, ez zazula gaizki erabil... Ez da hunen falta hola balin bada.

PAKO: Dudarik gabe biluzi da, beroegi zuelakotz.

MERA: (*Bixi bixia*) Zuk, zure mihia atxik-azu zuretzat... Nehork ez dautzu pitsik galdatzen.

PAKO: Ene gogoaren agertzeko dretxoa ahal dut. Jes... Nik arras ontsa konprenitzen dut gizon bat biluz ditakela, odola kaldan duelakotz.

KOSE: Ba, holako usaiak baititu horrek.

PAKO: Holakoeri ohartzeko hobe haiz, hi ere, hire emaztea zaintzeko baino.

KOSE: (*Izigarri kexu*) Hik, zer duk, orai ere, erraiteko ene emaztearen-tzat?... Hi, jende zikintzale ustela (*papotik lotzen zaiio eta jali-tzen dira kanporat*).

PAKO: Galda xehetasunak, Mr. Philipperi... Galdazkik hari. Ai, bakea emak!...

MERA: (*Kexu*) Emozu hiltzekoa... Kali-azu, nahasi hori... Edo ezar-azu preso.

AROTZA: He, polliki, polliki, gu ere hemen gira gero.

MERA: Hi habil asto ferratzerat!

AROTZA: (*Kexu, papotik lotzen zaiio*) Asto ferratzerat?... He?... Asto ferratzerat... Haugi hunarat ferra beharretan bahiz... (*Kanporat pusatzzen du*) Emanen dauzkiat nik ferrak... Eta ez zangotan, bainan bertze nunbait.

PAKO: (*Kanpotik*) Ai, ai, ai... Hatsa, hatsa... Bizia, bizia... Zatozte laguntzerat.

GREGORIO: (*Jaliz*) Errak, Kose, utz-ak hori bere gisa edo urkatzen hut gero?

KOSE: Utz nezak. Utz nezak... Oroit hadi herriko mutila naizela!

GREGORIO: Ba, eta ni herriko eiherezaina.

PAKO: Herriko mutil haiz, bainan ez luzarako. (*Kalapitak kanpoan urrunduz ezituzen dira*) (*Xixon ikaran dago kalapitalarieri so*)

BERTA: Beldur zirea, Ttotte?

XIXON: (*Daldaraka*) Ez dakit.

BERTA: Ez izan beldur... Hau deitzen da: POLITIKA.

XIXON: Pol, poli...

BERTA: Politika ba... Zenbaitentzat hauxe da... Ez duzuia pitsik konprenitzen politikan?

XIXON: (*Luzaz buruarekin*) Ez...

BERTA: Ez zira bakarra. Hainitzek zu baino gehiago ez dute konprenitzen.

XIXON: (*Aboa zabalik*) Haa...

BERTA: Bainan, halere zerbait dute saltsatzen.

XIXON: (*Beti abo zabalik*) Ha, ha...

BERTA: Eta, hori politika egitea dute deitzen...

XIXON: (*Eskandalaz joa bezala*) Ho...

OIHALA



HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Bozkatzetako barnea, botz egunean. Untziaren zain dagozi, eskualde batetik: Mera eta Mr. Philippe. Bertzetik Arotza eta Gregorio. Erdian untziaz arta daukala: Kose. Denak zainetan dira. Kanpotik entzuten dira tuta batzu.

MERA: (*Kexu*) Tulariak eta jatslariak muntatu dituzue gu hemendik kanporat segitzeko... Ikusiko diagu nor izanen den hemendik kanpo, gu edo zuek.

AROTZA: Tuta eta jatslariak, ba muntatu ditugu, bainan, zuek bezala egitek... Zertako hasi zirezte? (*Xurien aldetik, ate bat idekitzen da... Bandera tipki bat xuria agertzen, zenbait jats ere eta tutak entzuten dira... Oihu batzu ere: Fuera gorriak, huun... gorrien aldetik, bertze hainbertze egiten dire*)

MERA: (*Xutituz eta exarpa soinean ezarriz*) Botzetako sala hau errespetatua izan dadien, galdetzen dut orori, xuri eta gorrieri, kanpoan egon daiten arrabotslari guziak.

AROTZA: (*Gregoriori abapetik*) Zonbat dituk oraino botza eman beharrak?

GREGORIO: Bost... Jiten badira segurik.

AROTZA: Eta... Zertan duk partida?

GREGORIO: Nik uste berdintsu gira... Azkenak behar ginituzke nihundik ahal badugu, gure alde bildu.

AROTZA: (*Koseri, hunek eskua untziaren gainean pausatu baitu*) Hep!... Esku hori ken untzi hortarik, plazer baduzu.

KOSE: Zer zautzu zuri, nik untzi hau hunkitzen badut ere?

AROTZA: Ba... Ez balitz lehenago horren hunkitzalerik izan, beharbada bertzela izanen ziren botzetako konduak.

MERA: Zer habila?... Partida galdu eta, tato faltsoketan? Ni nuk, oraino segurik, hemen nausi... Eta nik emaiten zioiat herriko mutilari untzi horren hunkitzeko dretxoa. (*Kosek hunkitzen du*)

GREGORIO: Horrek hunkitzen ahal badu, nik ere ba... (*Lotzen dira biak untziari tiraka*)

MERA: (*Oihuz*) Aski. Untzi hori bego hor... Beraz nehork ez dezala hunki.

AROTZA: Ez dugu bertzerik galdatzen. (*Kanpotik, berritz ere tuta eta oihu*)

JUSTINA: (*Sartzen da... burua galdua*) Botza emaiterat heldu naiz... Jaun erretorari emango diot... Zer egin behar dut hortakotz?...

AROTZA: (*Paper bat eskainiz*) Ori, hau da jaun erretoraren aldeko papera.

MERA: Hep, emeki, plazer baduzu... (*Paper bat eskainiz*) Huna jaun erretoraren aldeko zinezko papera.

AROTZA: Zuek, gorriak zirezte... Pittikaren hiltzaleak, ez ahal zinukete pretentzionerik, jaun erretora zuen alde dela?

MERA: Nik bazakiat jaun erretora norekin den... Zuen pretentziona guziengatik, aski kaskodun duk nor giren hemengotz kapableenen ezagutzeko.

AROTZA: Nori emango diozute botza, Justina, xuri edo gorrieri?

JUSTINA: Xurieri, bixtan da.

AROTZA: Orduan ez da dudarik: Hau da zure papera.

MERA: Errazu, Justina, noren alde zira? Ezkila saria goratu nahi dutenen alde, edo hol'hola utzi nahi dautzutenen alde?

JUSTINA: Bixtan da, goratzearen alde nizala.

MERA: Orduan, gure alde behar duzu bozkatu... Ori papera!

JUSTINA: Zer egin behar dut paper hauekin?

MERA: Ori paper xaku bat... Sar zaite kofesinlean, eta hauta azu zure eskualdea.

JUSTINA: (*Sartzen tia... Jendeke ikusten dute zer egiten duen. Arras nabasia, lehenik paper xakuan ezartzen du paper bat, hura jali eta bertzea. Azkenean zainak airean, biak ezartzen ditu betan*) Orai zer egin behar dut?

MERA: Orai, jali zaite hortik.

JUSTINA: (*Jalitzen da, eskuak butsik*) Orai, fini duta?

MERA: Nun duzu nik eman paper xakua?

JUSTINA: Hor, barnean.

MERA: Bainan, emaztea, ez da paper xaku hori utzi behar... Har-azu zurekin?

JUSTINA: (*Obedituz*) Behar duta hetsi?

MERA: Ez... Utzazu idekirik, eta ezarrazu untzi huntan!

JUSTINA: Behar dituta barneko paperak erakutsi?

MERA: Ez... Hol'hola sar-azu hori untzi huntan.

JUSTINA: (*Obedituz*) Ba, ez bainakien nola egin: bi paperak barnean ezarri ditut... Ontsa egin ahal dut?

MERA: Ontsa edo gaizki, egin duzuna, orai egina da.

JUSTINA: Bon, eta orai joaiten ahal niza?



GREGORIO: Ba, joaiten ahal zira eta lehen botikarioan erosten ahal dituzu burtxoroen sendatzeko sendagailuak.

JUSTINA: Zer zaude? Burutik minez?

GREGORIO: Segur balitake biltzekoa hemen entzuten eta ikusten direnekin.

JUSTINA: Zuhaurek nahi duzuenaz geroz. (*Jalitzzen da*)

AROTZA: (*Kexu*) Botz emaita hori ez da zuzena... Horrek xuri behar zuen bozkatu... Hasteko, ez da haizu bozen bilketan artzea, bozkatzeko salan... ezagutzen dut gero, nik ere legea.

MERA: Ez zioiat nik bere botza galdatu. Bakarrik xehetasunak ziozkaiat eman. Botzez hihaur ni bezanbat mintzatu haiz.

AROTZA: Ez dira horiek ahantziak izanen... Eta jakinazue gorago dei egiten dudala.

MERA: Ba, nik ere izanen diat zertaz dei egin... Nola botzetako papera markatuak dituzuen.

AROTZA: Nork eman ditik paper markatuak?... Zuek edo guk?... Larreondoko Manezeri nork eman zio markatuak?... Eta Gaztainondoko Mariari ere, nork?

MERA: Ba eta Sasialdeko Katizari? Eta Gorostaiteko Andresi?... Nork eman ziotek?

AROTZA: Gezurrak horiek guziak... Zer gituzue?... Zuen heineko nahi?... Ez gituk, gu zuen iduriko saltseroak.

DOLOREZ: (*Sartzen da, bertzeak ixiltzen dira*) Botza emaiterat heldu naiz.

MERA: Ori paper xakua... Pako nun duzu?... Ez da oraino agertu botza emaiterat.

AROTZA: Bere dretxoa ahal du... Nahi badu ez jin ere.

MERA: Ez... Hori erraiten dautzut... Bere abantaila bailuke gerlako penxionearengatik, jin dadien botza emaiterat.

DOLOREZ: Ez eni galda, ene gizonaren berri... Ez du berdin, nik kontseilaturik botza emaiten.

AROTZA: Pena da ez baitu hala egiten.

MERA: Pena?... Zertako pena?... Ala baitezpada zuentzat eman behar dia Dolorezek bere botza?

AROTZA: Dolorezek eta nik badakigu elgarren berri.

KOSE: (*Larriki*) Zer duzue?... Elgar kontsultatzeko usaia?

AROTZA: Ba, hire emaztearekin ikasia.

KOSE: (*Samur*) Zer duzu, zuk ere ene emazteaz erraiteko?

AROTZA: Nik, deus ere, bertzek erraten ez dutenik. Bakarrik, hire emazteak baduela kontseilari bat hauta.

KOSE: Ene emaztea utziko duzu bere gisa.

AROTZA: Segur eta hal'ere utziko dudala: hol'hola baitik aski gizonik. (*Tuta batzu*)

MERA: Dolorez, zure paper xaku hori ezarrazu untzian... Agian, hemen-go kalapitek ez zituzte zintzoki botza ematetik gibelatu.

DOLOREZ: Zintzoki emango duenak, ez du sahetseko saltseri kasurik egiten... Agur jaunak!...

DENEK: Ba, agur Dolorez!

MERA: Ixtantean, salaren hesteko tenorea... Ikusiko diagu noren izan den azken hitza.

AROTZA: Segur ikusiko dugula.

BERTA: (*Sartuz*) Zato, Ttote, zato! Botza eman behar dugu (*Xixon ere sartzen da*). Botza emaiterat heldu gira biak.

MERA: Ontsa da... Har-zkitzue paper xakuak. (*Xixoneri*) Hor duka, paper xakuan ezartzeko nik eman papera?

XIXON: Ba, ba. (*Paper bat jalitzzen du sakela batetik, bertze bat bertzetik*)

MERA: (*Bat irakurtuz*) Hau duk ona. Hau ezarriko duk paper xakuan.

AROTZA: Ez duk hiri manatzea nori eman behar duen botza.

MERA: Ez hut nik hi debekatzen, nahi baduk hire alaba gobernatu... Bainen ene semearen gidatzerat utz nezak ni... (*Semeari*) To papera. Hori ezarrak paper xakuan.

AROTZA: Kofesinalean egiten den lana da, papera bere xakuan sartzea, eta ez kanpoan.

MERA: (*Semeari*) Bon, beraz. Habil ixtaño bat zilo hortarat... Hortik jali eta, aski duk paper xaku hau, hol'hola untzi huntarat aurtikitzea.

AROTZA: Ez duk hori libroki bozkatzea, bainen hik manatuz.

BERTA: Zato, Ttote, enekin kofesinale barnerat. (*Biak sartzen dira*)

MERA: (*Kexu*) Ez da hori legea, bederazka sartu behar da kofesinalean eta ez biranazka... Ttote, haugi hunarat kanporat!

AROTZA: Zer?... Beren dretxoa die, nahi badie parezka botza eman!

MERA: (*Ttote gibeletik tiratuz*) Ttote, haugi hunat!

BERTA: (*Eztiki*) Ez, ez. Ttote, zaude hemen ene ondoan. Zato gaixoa.

XIXON: (*Aitari olciartuz*) Ni utz, utz ni, ni Bertarekin.

MERA: (*Arrunt kexu*) Ez diat holakorik onartzen. Ez duk hori libertatea. Hori izpiritu ahulez baliatzea duk.

AROTZA: Libertatea duka hik hire semeari manatzea, nori botza behar dion eman?



BERTA: (*Jalitz maltzurki*) Alo, alo... Ez zitela kexa. Badakigu Ttotte eta nik, arras ontsa, nori botza eman. Ez dea hala Ttotte?

XIXON: Ba naski.

MERA: (*Erotua*) Ez zirezte nitaz trufatuko. Ez duk hori hola pasatuko. (*Semeari eskutik kentzen dio bere papera eta ordaina emaiten*) Hau, aditzen duka? Hau ezarriko duk untzian eta ez bertzerik.

AROTZA: (*Kexu, untziaren ziloa tapatuz*) Ez da hori libroki bozkatzea. Utz bere gisa... Berak, kofesionalean hautatu botza duk horrena eta ez hik eskutan ezarria.

MERA: Zer?... Ez duela botzaren emaiteko dretxorik. Ikusiko diagu... Herriko mutila, bortxaz, manatzen dautzut bozetako untzi hori libra dezazun.

BERTA: Aita, zaude deskantsuan... Utzazu untzia libre. (*Bertzeri*) Nik ere ahal dut botzaren emaiteko dretxoa.

MERA: Ba, zuk ere. Bainan horrek ere.

BERTA: Bon, nik ene papera untzian ezartzen dut.

MERA: Ontsa da... Eta orai, hire aldi, Ttotte... Hemen ezarrak eskuko paper hori. (*Bertak irri ezti batekin, ezetz dio Xixon... Hunek ez daki zer egin*) Mugi hadi ba... Hori ezarrak hemen. (*Xixonek dudan egonik naski obedituko du, bainan...*)

BERTA: (*Orbuz*) Kasu, Ttotte, kasu, zinaurriak, zinaurriak. Dena zinaurritz betea da untzi hori. Ihesi ihesi hemendik!

XIXON: (*Orroaz*) Ai, ei, ai!... Zinaurriak, zinaurriak! (*Tira abala ibesi sala-tik Berta ondotik*)

MERA: Ttotte, Ttotte. Deubru mensa, haugi hunat... Urde ustel zikinak ez duzue ez nitaz irri eginen. (*Bere adixkideri*) Zuek zauzte hemen erne... Jin araziko dut ba... Ha, zer uste dute?... Hortan geldituko dela afera. (*Tira abala jalitzzen da*)

AROTZA: (*Irri maltzur batekin*) Uste balin badik gure Bertari nausitzea... Ez bide zakik norekin duen partida.

KOSE: Zuen egitatea, ustelkeria bat da.

OSTALERTSA: (*Sartuz*) Agur, jaunak! Botza emaiterat heldu naiz tira ahala, ostatua, ixtant bat, nehor gabe utzirik.

KOSE: Ori, paper xakua.

OSTALERTSA: (*Botza emanaz behar den bezala*) Jes, zer du merak holako lasterretan karrikan gaindi?

AROTZA: Bere seme ernearen ondotik, dabila ihizian.

OSTALERTSA: Berritz ere ihizi ixtorio? Baginuen ba aski hortarik egun hautan.

AROTZA: Eta, ez dira oraino denak bururatuak... Sasoina ideki berri da gero bakarrik.

OSTALERTSA: Orai baino saltsa hoberik eginen ahal dugu ihiziekin, ondo-ko egunetan.

AROTZA: Agian ba, eta biper gorri gutixagorekin... Harekin ez baita saltsa onik.

KOSE: Biper gorri bixia hobe, tipul buru zuria baino.

OSTALERTSA: (*Jalitz irriz*) Bon, bon... Ekazue gaia... Nik saltsatuko dautzuet denen gosturat.

KOSE: Denen gosturat edo nehoen... Lepoa joka nioie, botza ere, hitze-maiten duen saltsa bezalako bota duela.

AROTZA: Estonatzeko duk ez baituk halere pretenitzen botza zuen alde eman duela.

KOSE: Errex izanen da jakitea nori eman duen... Untzi barnean gaineko lehen papera horrena izanen baita... Eta azpiko lehen papera berritz jaun erretorarena... Hura baitzen goizean lehen botz emale.

AROTZA: Hola beraz, botzen emaleak zaintzen dituzue... Eta zenbaiti paperak markatu diozkazue?

KOSE: Ofizio hori balin badugu ere, ez dugu hartan zueri zorrik.

PAKO: (*Sartuz arras mozkorra, bi botoila, bat xuritik bertzea gorritik dauzka bi sakeletan... Kantuz ari da*)
Xakurak hau
Gatuak ñau, etc...
(*Oibuz*) Hep, etxe huntako jendeak... Gizon balios bat hemen duzuela, bere eginbidearen betetzerat etorria.

AROTZA: Mugitzen ahal zare botzaren emaiterat... Laster tenorea izanen baita salaren hesteko.

PAKO: Zer duk hik, arotz mutur beltza, ni hola manatzeko. Nahi diatana-ri emanen diat ene botza, eta ez hik manatutik.

AROTZA: (*Samar*) Heu!

GREGORIO: (*Abapetik*) Ezti zaite... Horren botzaren beharretan gare pasatzeko. Behar ginuke baitezpada bildu.

PAKO: (*Lurrean jartzzen da eta bi botoilak bere aintzinean pausatzen ditu*) Hemen ene etxean nik, nor-nahi bezenbat. Ene diruz egina baituk etxe hau, bertze nor-nahirenez bezenbat. Eta, ni, hemen, nehor ez nezala mana.



MONSIEUR PHILIPPE: Arrazoina duzu, Pako... Eta, zuk bezala gerla egin duen gizona, barne huntan bere etxean da, bertze nehor baino gehiago.

PAKO: Preseski... Zuri banda zikina zuek... Merian sartu baino lehen ere, hemen legea egingo duzuecia? Hemen, mera bat ezagutzen diat. Eta, zuetarik nehorik ez dik hemen nik baino gehiago dretxorik. Biba gorriak. (*Gorritik edaten du*)

GREGORIO: Ez zirela beldur, hola oihera eginez, ogia galduko duzula?

PAKO: Ha. Zer nahi duk, hik ere, ene botza bildu? Eta, galtzen badiat ogia, hik zer afera duk? Ene ogiaren irabazteko on ahal nuk. Ez nuk, hire eiheran behin ere ogi eske ibili, dakidanaz.

Ha, nun ditiat paperak? Huna xuriena, eta huna gorriena. Hauk gauza pollitak? Hauk badutela gero errespetu... Ni, beti azken mementoan botza emaiterat jiten nuk... Hauk eskutan ditudano, alabainan, norbait nuk... Zeren-eta, aitortazue, denek zuen baitan mespresatzen nauzue... Bainan denak ixilik zagozte, hunako paper pollit hau nahi duzue-lakotz zuenganatu. Paper hau untzian ezarri ordutik, deus ez diat balioko zuentzat. Deus gehiago zuen ostikoentzat ere ez nuk on izanen. Hortakotz ditiat paper hauk, ahal bezen luzaz eskuetan beiratzan... Hau, zuena zuriak!... Eta, hau zuena, gorriak! Sofri hor. Biba gorriak! (*Edaten du*)

Haatik, ez uste izan, zuek zuriak, baitezpada gorrieri emango dudala ene botza. Berdin zurieri eman zezakeat... To, nahi baduzue, ariko gaituk tratuan: ean nork eskainiko dautan gehienik... Lehenik, zuek gorriak, mintza zaitze.

MONSIEUR PHILIPPE: Guk, Pako, gizon beharduna beti errespetatzen eta laguntzen dugu... Zure pentxionea biltzeko, badakizu zer hitzeman dautzugun.

PAKO: Ez zira gaizki mintzo... Eta, zuek zuriak zer dautazue hitzemaiten?

GREGORIO: To, laguntzen bagituk pasatzen, ukanen duk herriko mutilgoa, Koseran orde.

PAKO: Bai, hori gostuko lana nitek... Zuen tratua hobea diat besterena baino... Biba zuriak!

KOSE: (*Kexu*) Zuri ustelak. Beharrik zuen ametsa ez duzue bururatuko.

PAKO: Biba zuriak! (*Zuritik edaten du*) Zuek, gorriak joazue inkanta... Gehienik eskaintzen duenak izanen dik ene botza... Orai, badakizue zurien berri... jo hor inkanta!

MERA: (*Sartzen da, samur*) Mutiko trixtea!

MONSIEUR PHILIPPE: Ez duzuia bildu?

MERA: Ez, tira ahala ihesi joan da oihera alderat... Igorri dazkot ondotik xekariak.

MONSIEUR PHILIPPE: Laster behar luke jin, hesteko tenorea hurbil baita.

PAKO: Biba zuriak!... Nork du gehiago eskaintzen?

MERA: (*Kexu*) Zer ari zira hor lurrean? Zer dituzu molde horiek he?

PAKO: Galde-ozute ingurukoeri ene berri. Erranen dautzute nola inkantaginuen, zu sartzean. Biba zuriak!

MERA: Plazer baduzu, xutituko zira hortik, eta xutik egonen, toki hunen errespetuaz.

PAKO: Jaun Mera, manatuko duzu zure etxean, nahi baduzu, bainan ez hemen. Hau denen etxea da.

MERA: Zeeer?

MONSIEUR PHILIPPE: (*Ahapetik merari*) Otoj, eztiki harrazu... Botza emaitekoa baitu... (*Pakori*) Ba, Pako, Jaun Mera ontsa mintzo da. Ederrago laiteke, batere manatu gabe, xutitzen bazine.

PAKO: Jaun Merak mana dezola lehenik bere etxeko zozoari... Harek obedituko duelarik, nik ere obedituko diot.

MERA: (*Mr. Philippek ezin ezti du*) Jakin-ak herriko lehena ni naukala, eta errespetua zor dautakala!

PAKO: Ba, zu herriko lehena, eta zure erne hura herriko azkena! (*Irriz*)

MERA: (*Errabian*) Errak berritz holakorik... Nahi duka beharri ondoko bat?

PAKO: Biba zuriak!... (*Irriz*) Holakorik nork ikusi du behin ere?

AROTZA: Errazu, Pako, erna zaitte botza emaitekotz.

PAKO: (*Beti irriz*) Ihizirat joan, eta armarik gabe etxerat. Eta, gainerat larru gorrian.

AROTZA: (*Kexu*) Errazu, Pako, tenorea duzula... Mugi zaitte hunarat bozkatzerat.

PAKO: (*Kexu*) Zuk ere zer duzu, ni hola manatzeko?

AROTZA: Zure onetan ari naiz, gizona, ez zaitela samur.

PAKO: Nardagarri ere bazait azkenean, hola eskalari buru ezin eginez artzea.

AROTZA: (*Kexu*) Nor da eskalea?... Zu edo ni?

PAKO: Zu ba beti hala zira, bat ederra, ni ez naiz behin ere zuen etxean galdezka ibili. Eta zu hemen zabilta ene ondotik, botza eske, gatu zaharra ñauka ibiltzen den bezala. (*Orenak entzuten dira*)



MONSIEUR PHILIPPE: Xo, hep, xo, lau, bortz, sei, sei orenak. Ale, sala hets! Fini da orai bozkatzeko tenorea.

AROTZA: Heu... (*Izigarri samur, Pakori lepotik lotuz*) Nor duk eskalea, hemen, urde mozkor nahasi zikina!

PAKO: Ai, ei, ail... Botzak fini, fini Pako.

MERA: (*Pakori ostikoka*) Kanporat mozkor tzar usaindua, kanporat hemendik. Herriko mutila ezarrazu kanpoan gizon hau.

PAKO: (*Kanpotik*) Ez nian bertze beldurrik. Ustel banda zikinak zuek!

MERA: Bon, orai planta gaiten botzen kondatzeko. (*Atetarik, tata, jats eta oihu*) Kanpokoak daudela kanpoan! Hemen bagira hol'hol-a aski mundu.

ZURIAK: (*Kanpotik*) Huuu, fuera gorriak!... Gorriak kanporat!

GORRIAK: (*Berdin*)

AROTZA: (*Zurieri*) Utz gaitzazue otoi lehenik paperen kondatzerat!

MERA: (*Gorrieri*) Zueri ere, gauza bera dautzuet galdatzen. (*Botzak kondatuz*) Lehen papera.

GREGORIO: (*Abapetik Arotzari*) Ostalertsarena.

MERA: Hau nehorendako ez da, bi lixtak barnean baititu.

GREGORIO: (*Abapetik*) Atso ustela.

MERA: Hau gure... hau ere... (*Segitzen du*)

GORRIAK: (*Kantatuz pilotan bezala*) Bortz eta baterez. (*Kantatuz «Nor gira gu» airean*)
 Nor da nausi, nor da buru
 Gu gorriak, gu gorriak
 Nor da nausi, nor da buru
 Gorriak nausi gira gu, huuu!

ZURIAK: (*Kantatuz*) Hemezortzi eta hamabortz. Zuriek hemezortzi eta gorriek hamabortz. (*Kantatuz*)
 Nor da nausi, nor da buru
 Gu zuriak, etc...

(*Kantu denboran, mera eta arotza kalapitan lotzen dira papera baten gainetik... denak ixiltzen dira*)

MERA: Paper hau ez da bali... markatua baita... So egizue zerbaitekin karrakatua du xoko hau. (*Zuriek huuu!*)

AROTZA: Zer, ez dela bali... karraka hori berenazkoa du, eta ez norbaitek egina. (*Gorriek, huuu!*)

MERA: Bon, beraz... Eginen dugu paso... Zenbana gira Mr. Philippe?

MONSIEUR PHILIPPE: Hogoira ados.

GORRIAK: (*Finitzean*) Fuera zuriak! Nor da nausi eh?

ZURIAK: (*Berdin*)

MERA: Xo, ixilik!... Hogoia eta laura berdin gare... papera bat gelditzen da bakarrik.

KOSE: (*Gora*) Ba, jaun erretorarena, lehen zolakoa harena baitzen.

GREGORIO: (*Harrotua*) Hobe, hobe, beraz biba zuriak. Zuriak nausi.

ZURIAK: Biba zuriak... Fuera gorriak...

MERA: Emeki, emeki, ikus eta mintza... ez lehenago.

GREGORIO: Zer ikus-ta? Ikusten ahal duzu ba.

MERA: (*Denak ixilik daudela eskuak daldaran, emeki idekitzen du paper xakua, eta handik jalitzen ditu bi paper, bi lixtak*) Hau ez da nehorentzat.

GREGORIO: (*Errabian*) Apez ustela! Beraz saldu gaitik.

GORRIAK: Huuu!

ZURIAK: Huuu!

MERA: Xo ixilik!... Beraz hogoi-eta-laura berdin gira... Botzak berritz haste, heldu den igandean.

AROTZA: Ha... Nausituko zinezte... Ez zarezte haatik egin...

MERA: Ez zuek ere.

GORRIAK: Huuu!

ZURIAK: Huuu! (*Xixon pusatzen dute barnerat, xoxotua dago*)

MERA: (*Izigarri kezu*) Nundik agertzen haiz hunarat... Bainan nundik agertzen haiz?

XIXON: Botza... botza eman...

MERA: Hau duka tenorea bozkatzerat jiteko? Nun hintzen orai artio, trixtea! (*Beharri ondoko bat eskaintzen dio*) Higitik, ez gaituk pasatu. (*Zuri eta gorri denak oibuz ari dira... Sala orok busten dute*)

XIXON: (*Bakarrik. Kara trixte batekin, eskuaz mahain gaineko botzetako paperak nabas mabastekatzen ditu emeki... Betbetan irri xoxo batekin*) Nik ere ba paperak. (*Sakelatik jalitzen ditu bi lixtak*) Hau aitak emana... Hau Bertak. (*Apur bat ixilik lixteri beha dago Berta-renari potta emaiten dio*) Gizonak samur... Ba, paperak. (*Espaldez egiten du: Ez duela konprenitzen. Bet betan irri xoxo batekin, kopeta eri batez xilatuz emeki*) Zonbat jende xoro den mundu huntan!

OIHALA